

**EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen
Arloko Plana**

Behin betiko onarpena

**V. LIBURUKIA. Azterlan ekonomikoa eta finantzarioa eta
jardun-programa**

Martxoa 2007

AURKIBIDEA

SARRERA	4
1 1. AZPIPROGRAMA : ITSASOKO ETA LEHORREKO JABARI PUBLIKOAREN ETA BERE ZORTASUN ZONEN GAINEN JARDUNAK ETA ADMINISTRATZIO KOORDINATZIOA.....	6
1.1 1.1. JARDUNA : ITSASOKO ETA LEHORREKO JABARI PUBLIKOAREN MUGAKETAK BEHIN BETIKO ONARTZEA ETA EGIN GABE DAUDEN TARTEAK MUGATZEA.....	6
1.2 1.2. JARDUNA : KOSTALDEAK BEREZIKI BABESTEKO ESPARRUEN DEFINIZIOA, KOSTALDEEI BURUZKO LEGEAREN 22. ARTIKULUAREN ARABERA.....	7
1.3 1.3. JARDUNA : EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INGURUMENA BABESTEN DUEN 3/1998 LEGEAREN 51. ARTIKULUAREN ARABERA, KALTE ERRAZEKO INGURUMENA DUTEN ZONAK MUGATZEA	8
2 2. AZPIPROGRAMA : AZPIEGITURAK EGOKITZEA	10
2.1 2.1. JARDUNA : ARAZKETA ETA SANEAMENDU GAIAK KOORDINATZEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PLAN ZUZENDARIA IDAZTEA	10
2.2 2.2. JARDUNA : HONDAKIN UREN ARAZTEGIAK ERAIKITZEA	11
2.3 2.3. JARDUNA : HIRIGUNEETAN SAIHESBIDE BERRIAK ERAIKITZEA.....	11
3 3. AZPIPROGRAMA : BALIABIDE NATURALAK BABESTEA, HOBETZEA ETA KONTSERBATZEA.....	13
3.1 3.1. JARDUNA : LAA-ETAKO 3. ERANSKINEKO INTERES NATURALISTIKOKO EREMUAK UDAL PLANGINTZAN BARNE HARTZEA.....	13
3.2 3.2. ESPAZIOAK NATURA 2000 SAREAN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BABESTUTAKO NATURA ESPAZIOEN SAREAN SARTZEA	15
3.3 3.3. JARDUNA : NARRIATUTAKO ESTUARIOAK LEHENERATZEA (BARBADUN, BUTROE, LEA, ARTIBAI, DEBA, UROLA ETA ORIA).....	16
3.3.1 3.3.1. ESKU HARTZEA. Barbadunen estuarioa	16
3.3.2 3.3.2. ESKU HARTZEA. Butroeren estuarioa.....	17
3.3.3 3.3.3. ESKU HARTZEA. Learen estuarioa	18
3.3.4 3.3.4. ESKU HARTZEA. Artibairen estuarioa	18
3.3.5 3.3.5. ESKU HARTZEA. Debaren estuarioa.....	19
3.3.6 3.3.6. ESKU HARTZEA. Urolaren estuarioa.....	19
3.3.7 3.3.7. ESKU HARTZEA. Oriaren estuarioa.....	20
3.4 3.4. JARDUNA : HONDARTZA ETA KOSTALDEKO ZONA NARRIATUAK LEHENERATZEA.....	21
3.4.1 3.4.1. ESKU HARTZEA. Bilbaoko portuko kanpoaldeko Abra.....	22
3.4.2 3.4.2. ESKU HARTZEA. Kondemasti (Pasaia).....	22
3.4.3 3.4.3. ESKU HARTZEA. Inpernupe (Zumaia).....	22
3.4.4 3.4.4. ESKU HARTZEA. Ondarbeltz (Mutriku)	22
3.4.5 3.4.5. ESKU HARTZEA. Basordas (Lemoiz).....	23
3.4.6 3.4.6. ESKU HARTZEA. La Bola eta Areeta (Getxo)	23
3.5 3.5. JARDUNA : LANDARE ESTALKIA LEHENERATZEA ETA KONTSERBATZEA.....	23
4 4. AZPIPROGRAMA : ERABILERA PUBLIKOA SUSTATZEA ETA ARAUTZEA	25
4.1 4.1. JARDUNA : INGURUMEN HEZKUNTZAKO ETA NATURA INTERPRETATZEKO PLANAK LANTZEA.....	25

4.2	4.2. JARDUNA : HIRI HONDARTZEN ERABILERA PUBLIKOKO PLANAK LANTZEA ETA GAUZATZEA	26
4.3	4.3. JARDUNA : ITSASERTZA ERABILI ETA GOZATZEKO INTERPRETAZIOKO ZIDORRAK EKI PATZEA	28
5	5. AZPIPROGRAMA : IKERKUNTZA ZIENTIFIKOA.....	30
5.1	5.1. JARDUNA : ITSASERTZAREN INGURUMEN EGOERARI BURUZKO PROIEKTUAK IDAZTEA	30
5.2	5.2. JARDUNA : ITSASERTZAREN KUDEAKETARI BURUZKO PROIEKTUAK IDAZTEA	31
6	ITSASERTZA BABESTU ETA ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANAREN JARDUN PROGRAMAREN BALORAZIO EKONOMIKO OROKORRA ETA LEHENTASUNAK EZARTZEA	33
6.1	JARDUNEN LEHENTASUNAK EZARTZEA.....	33
6.2	AZTERLAN EKONOMIKOA.....	34

SARRERA

Planaren helburuak erdiesteko, jardun-programa bat proposatzen da; bertan, planaren antolamendu-esparruan burutu beharreko esku-hartze nagusiak biltzen dira.

Helburu zuzenenei erantzuna emate aldera, oinarrizko 5 azpiprograma ezarri dira eta, bertan, ondorengo jardun-tipologiak biltzen dira:

1. Itsasoko eta lehorreko jabari publikoko ondasunak eta horien zortasun-zonak administratu eta koordinatzeko jardunak.
2. Azpiegitura-gaietako defizitei aurre egitera bideratutako jardunak.
3. Baliabide naturalak babestu, hobetu eta kontserbatzera bideratutako jardunak.
4. Itsasertzeko eremuaren erabilera publikoa sustatu eta arautzeko jardunak.
5. Ikerketa zientifikoko azterlanak.

Azpiprogrametako bakoitzak dagozkion helburu orokorrak eta espezifikoak biltzen ditu, baita bakoitzeko jardun-multzoa ere. Jardunez gain, kokapena ere deskribatzen da. Jardun espezifikoak baldin badira, bestalde, gauzatze-maila, gauzatuko duen erakundea eta beharrezko inbertsioa zehazten dira.

Jardunaren **gauzatze-mailak** bere irismenari erreparatzen dio, eta ondorengo kasuak gerta daitezke:

- Administrazioaren esku-hartzea: kasu honetan, administrazio eskumendunak/ek esku hartzen du(te), adibidez, mugak ezartzeko, zabalkuntza baten deklaraziorako eta abar.
- Azterlan, plan edo proiektu bat idaztea: dokumentu tekniko edo arauemaile bat prestatzea, gehienetan jardun-programa baten eta inbertsio programatu batzuen iturburu izaten dena.
- Obra egitea: plan baten jardun-programa edo proiektu bat gauzatzen du.

Proposatzen diren jardunen artean, behintzat gutxi gorabehera aterata, kostu-kalkulu bat egiteko modua ematen dutenak **ekonomikoki baloratzen dira**. Beste batzuk, bereziki administrazioaren esku-hartzeak, horien eskumen-esparrua edo beste zirkunstantzia batzuk direla eta, oso zailak dira diruz kuantifikatzeko, eta, beraz, balorazio ekonomikotik kanpo uzteko erabakia hartu da.

V. LIBURUKIA. Azterlan ekonomikoa eta finantzarioa eta jardun-programa

Itsasertzeko esparruak oso azalera handia duenez, kontuan hartu behar da burututako balorazio ekonomikoak gutxi gorabeherakoak eta hurbilketa bidezkoak direla. Horrenbestez, proposatutako edozein jardun martxan jartzeko, azterlan zehatz bat egin behar da aurretik, era errealagoan eta zehatzagoan horien kostuak balora ditzan.

Azkenik, jardun-proposamenak behar bezala **hierarkizatu** dira hiru lehentasun-mailari erreparatuz:

- Lehen maila: Uneko egoera kritikoa dela eta, interes handiko jardunak dira, hau da, Plana indarrean sartzeko denetik eta hurrengo lau urtean (2007-2010).
- Bigarren maila: Pixkanaka itsasertzeko eremu jakin batzuk berreskuratu, leheneratu eta hobetzera eta babes-figurak ezartzera bideratutako jardunak dira, horiei epe labur-ertainean ekin behar zaienak, hau da, bigarren lau-urtekoan (2011tik 2014 urtera).
- Hirugarren maila: Maltzo honetako jardunak 8 urtetik 16 urteko epean hasi beharrekoak dira eta, gehienetan, ingurumen oso narriatuko zonak berreskuratzea, ingurumen-baliabideak erabili eta gozatzera eta ikerkuntza-azterlanak egitera bideratuta daude (2015tik 2022 urtera).

1 1. AZPIPROGRAMA : ITSASOKO ETA LEHORREKO JABARI PUBLIKOAREN ETA BERE ZORTASUN ZONEN GAINEKO JARDUNAK ETA ADMINISTRAZIO KOORDINAZIOA

HELBURU OROKORRA

Itsasoko eta lehorreko jabari publikoaren eta babes-zortasuneko zonaren kontserbazioa bermatzea eta lurralde- eta hirigintza-jardunak itsasertzaren eta bere lehorreko ingurunearen gainean lan egiten duten administrazioen artean ezin hobeto koordinatzearen lortzea.

BERARIAZKO HELBURUAK

- Itsasoko eta lehorreko jabari publikoko ondasunak eta babes-zortasuneko zonak mugatzea.
- Kostaldean babes bereziko zonak mugatzea, horien gainean babes-arauak ezartzeko, Kostaldee buruzko Legearen 41. artikularen arabera.
- Itsasoko eta lehorreko jabari publikoa eta bere babes-zortasuna hobeto kudeatzea ahalbidetuko duten berariazko tresnak ezartzea.
- Jardunak eskumen-administrazioen artean (tokikoa, autonomia-erkidegokoa eta zentrala) koordinatzeko mekanismoak garatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzaren kudeaketa integratua bultzatu ahal izateko.

JARDUNAK

- 1.1.** Itsasoko eta lehorreko jabari publikoaren mugaketak behin betiko onartzea eta egin gabe dauden tartek mugatzea.
- 1.2.** Kostaldeak Bereziki Babesteko Esparruen definizioa, Kostaldee buruzko Legearen 22. artikularen arabera.
- 1.3.** Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesten duen 3/1998 Legearen 51. artikularen arabera, Kalte Errazeko Ingurumena duten Zonak mugatzea.

1.1 1.1. JARDUNA : ITSASOKO ETA LEHORREKO JABARI PUBLIKOAREN MUGAKETAK BEHIN BETIKO ONARTZEA ETA EGIN GABE DAUDEN TARTEAK MUGATZEA

DESKRIBAPENA

Itsasoko eta lehorreko jabari publikoan eta babes-zortasunean egindako mugaketak behin betiko onartzea eta oraindik egin gabe dauden tartetean mugaketa-proiektuak egitea.

GAUZATZE MAILA

Administrazioaren esku-hartzea

GAUZATUKO DUEN ERAKUNDEA

Euskal Autonomia Erkidegoko Kostalde Mugapea

LEHENTASUNA

1. maila

**1.2 1.2. JARDUNA : KOSTALDEAK BEREZIKI BABESTEKO
ESPARRUEN DEFINIZIOA, KOSTALDEEI BURUZKO
LEGEAREN 22. ARTIKULUAREN ARABERA**

DESKRIBAPENA

LAP honetan **Babes Zorrotz Bereziko** azpikategorian sailkatutako zonak **Kostaldeak Bereziki Babesteko esparru** deklaratzeko.

Babes Zorrotz Bereziko kategorietako Itsasertzeko LAParen xedapenen eta, Kostaldeei buruzko Legearen II. tituluaren 22. artikuluen arabera, lur hauetan Estatuko Administrazioari esleitu zaizkion eskumenak burutzearen artean eman daitezkeen kontraesanak ekiditeko asmoz, LAP honetan **Babes Zorrotz Bereziko** azpikategorian sailkatutako zonak **Kostaldeak Bereziki Babesteko esparru** deklaratzeko proposatzen da.

KOKAPENA

LAP honek Babes Zorrotz Bereziko azpikategorian sailkatutako zonak antolamenduko 1:10.000 kartografian islatu dira eta honako unitate hauei dagozkien:

- 60ºko aldapa baino handiagoa duten kostaldeko itsaslabarrak
- Urradurako plataformak
- Dunak
- Lurraldeko itsasoko uharteak
- Hondartza naturalak
- Eremu bereziak

GAUZATZE MAILA

Administrazioaren esku-hartzea.

GAUZATUKO DUEN ERAKUNDEA

Euskal Autonomia Erkidegoko Kostalde Mugapea, autonomia-erkidegoko administrazioak eta eraginpean hartzen dituzten lurraldeetako udalek txostena egin ondoren.

LEHENTASUNA

1. maila

1.3 1.3. JARDUNA : EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INGURUMENA BABESTEN DUEN 3/1998 LEGEAREN 51. ARTIKULUAREN ARABERA, KALTE ERRAZEKO INGURUMENA DUTEN ZONAK MUGATZEA

DESKRIBAPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesten duen 3/1998 Legearen 51. artikulua honela definitzen du **Kalte Errazeko Ingurumena duen Zona**: *“bertako ingurumen-arloko balioen eta hauen ahultasunaren ondorioz dituzten ezaugarri bereziengatik, ingurumen-arloko kalte handiagoak jasan ditzakeena (...)”*.

Legearen arabera, kalte errazeko ingurumena duten zonak, balio jakinak kontuan hartuta katalogatu behar dira. Itsasertzeko eremuan, kalte errazeko ingurumena duten zonen balio horien artean, honako hauek daude gutxienez:

- a) *“Itsasoko eta lehorreko jabari publikoa eta bere babes-zortasuna*
- c) *Akuiferoak betetzeko eremuak, eta hauek kutsatzeko arrisku handia duten zonak, betiere katalogatuak badaude*
- d) *Interes naturalistiko handiko eremu edo enklabeak, betiere katalogatuak badaude”*

KOKAPENA

EAEko Kalte Errazeko Ingurumena duten Zonen Katalogoan, honako eremu hauek sartu behar dira:

- a) Babes Berezikoak bezala sailkatutako zonak. Hauek, orokorrean, 60ºko aldapa baino handiagoa duten itsaslabarren kasuan izan ezik, itsasoko eta lehorreko jabari publikoak bezala sailkatzen dira, eta honako unitate hauek osatzen dituzte:
 - Kostaldeko itsaslabarrak
 - Urradurako plataformak
 - Dunak
 - Lurraldeko itsasoko uharteak
 - Hondartza naturalak
 - Itsasertzeko landaredi bereziko eremuak eta marearteko zonak

V. LIBURUKIA. Azterlan ekonomikoa eta finantzarioa eta jardun-programa

- b) Akuiferoak kutsatzeko arrisku handi eta oso handiko eremuak, *EAEko Akuiferoak Kutsatzeko Arriskuko Maparen* arabera, 1: 25.000 eskalan.
- c) Interes naturalistiko handiko enklabeak, honako eremu hauetan sartuta:
- Itsasertzeko esparruan sartutako Espazio Natural Babestuak
 - EAEko Inguru Hezeak Babesteko eta Antolatze LAPak antolatutako inguru hezeak
 - EAEko Espazio Natural Babestuen Sarea osatzeko LAP honetan proposatutako zonak

GAUZATZE MAILA

Administrazioaren esku-hartzea.

GAUZATUKO DUEN ERAKUNDEA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

LEHENTASUNA

1. maila

2 2. AZPIPROGRAMA : AZPIEGITURAK EGOKITZEA

HELBURU OROKORRA

Itsasertzeko esparrua bertan bizi direnen bizi-kalitatea hobetzeko beharrezkoak diren oinarritzko azpiegiturez hornitzea, baliabide jakin batzuen gaineko babes egokia ahalbidetzea eta harreman-sistema hobetzea. Ahaztu gabe kontuan hartu behar direla sor litezkeen ziurgabetasuneko osagaiak, aldaketa klimatikoa dela eta.

BERARIAZKO HELBURUAK

- Azpiegitura-defizita duten guneen saneamenduari konponbidea aurkitzea, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko arroetako ibilgu eta itsasadarretara egiten diren araztu gabeko hondakin-uren hirietako eta industrietako isurketak ezabatuz.
- Harreman-sistema hobetzea, hiriguneen arteko konexioei dagokienez batik bat.

JARDUNAK

- 2.1. Arazketa- eta saneamendu-gaiak koordinatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Plan Zuzendaria idaztea.
- 2.2. Hondakin-uren araztegiak eraikitzea.
- 2.3. Hiriguneetan saihesbide berriak eraikitzea.

2.1 2.1. JARDUNA : ARAZKETA ETA SANEAMENDU GAIK KOORDINATZEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PLAN ZUZENDARIA IDAZTEA

DESKRIBAPENA

Arazketa- eta saneamendu-gaiak koordinatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Plan Zuzendaria idaztea. Plan horrek plangintza-tresna markoaren eginkizuna beteko du eta helburuak, bitartekoen antolakuntza eta gai honetan eskumenak dituzten administrazioek aurreikusitako baliabideen esleipena ezarriko ditu.

GAUZATZE MAILA

Plana egitea

GAUZATUKO DUEN ERAKUNDEA

Estatuko Administrazioa, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Saila eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila, eta Foru Aldundiak.

LEHENTASUNA

1. maila

2.2 2.2. JARDUNA : HONDAKIN UREN ARAZTEGIAK ERAIKITZEA

DESKRIBAPENA

LAP hau idatzi arte saneamendu planifikaturik ez duten hirigune eta bizitegi-eremuetan hondakin-uren araztegiak instalatzea.

KOKAPENA

- Bariñatxe eta Arrietara hondartzak (Sopelana)
- Armintza eta Urizar gunek (Lemoiz)
- Ondarroa
- Mijoa erreka industria-poligonoa (Satarraran hondartza)

GAUZATZE MAILA

Proiektua idaztea eta obra egitea

GAUZATUKO DUEN ERAKUNDEA

Estatuko Administrazioa, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Foru Aldundiak eta Ur Partzuergoak.

LEHENTASUNA

1. maila

2.3 2.3. JARDUNA : HIRIGUNEETAN SAIHESBIDE BERRIAK ERAIKITZEA

DESKRIBAPENA

Hiriguneetan saihesbide berriak eraikitzea.

KOKAPENA

- GI-638 Mutrikun
- GI-638 Debaren itsasadarraren ezker aldean

V. LIBURUKIA. Azterlan ekonomikoa eta finantzarioa eta jardun-programa

- N-634 Orion
- Zarauzko hegoaldeko saihezbidea
- Bermeoko saihezbidea

GAUZATZE MAILA

Proiektua idaztea eta obra egitea

GAUZATUKO DUEN ERAKUNDEA

Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiak

LEHENTASUNA

2. maila

3. AZPIPROGRAMA : BALIABIDE NATURALAK BABESTEA, HOBETZEA ETA KONTSERBATZEA

HELBURU OROKORRA

Itsasertzeko ingurumen-balioak babestea, inguru sentikorrenen kontserbazioa bultzatuz eta ingurumen-ahalmena urrituta duten inguruak hobetzea eta leheneratzea ahalbidetuz.

BERARIAZKO HELBURUAK

- Itsasertzeko espazio natural garrantzitsuenen babes egokia bermatzea.
- Jasan duten industria-erabileraren ondorioz nabarmen narriatuta dauden hondartzak eta kostaldeko zonak leheneratzea sustatzea.
- Eremu narriatuenetako paisaia oro har bere onera ekartzea.
- Zona narriatuetako landare-estalkia berrezartzea eta hobetzea.

JARDUNAK

- 3.1. LAAetako 3. eranskinetako interes naturalistikoko eremuak hiri-plangintzako dokumentuetan aintzat hartzea.
- 3.2. Itsasertzeko espazio natural garrantzitsuak Natura 2000 Sarean edo EAEko Babestutako Natura Espazioen Sarean sartzea.
- 3.3. Hondartza eta kostaldeko zona narriatuak leheneratzea.
- 3.4. Intereseko eremuak birlandatzeko jardunak.

3.1. JARDUNA : LAA-ETAKO 3. ERANSKINEKO INTERES NATURALISTIKOKO EREMUAK UDAL PLANGINTZAN BARNE HARTZEA

DESKRIBAPENA

LAAetako 3. eranskinean itsasertzeko esparruaren barruan jasotako eremuak barne hartzea udaletako hiri-plangintzako tresnen lurzoruaren sailkapenean aintzat hartzeko.

LAAetako Ingurune Fisikoaren Antolamendurako 8. artzpidetako B idatz-zatiko 7. kapituluaren adierazten den bezala, bertako 3. Eranskinean sartutako espazioak "kontuan

V. LIBURUKIA. Azterlan ekonomikoa eta finantzarioa eta jardun-programa

hartu ahal izango dituzte, Lurraldearen Antolamenduari buruzko maiatzaren 1eko 4/1990 Legearen, eta lurzoruaren erregimenari buruzko legeen ondorioz ezarritako lurraldearen eta hirigintzako antolamendurako tresnek, lurraldea sailkatu eta kalifikatzeko haien proposamenetan sartzen badituzte”.

Testuinguru honetan sartzen da, beraz, itsasertzaren esparruan aipatutako Eranskinean bildutako espazioen interes naturalistikoa udalaren plangintzara pasatzeko LAAen agindua, lurzoruaren erregimenari buruzko legeria aplikatuz, lurraldearen sailkapenean eta kalifikazioan kontuan hartzeko. Eta plangintza horri dagokio, adierazitako balio naturalak kontuan hartuta, espazioen mugatze fisikoa egitea.

KOKAPENA

LAAetako 3. eranskinean sartutako espazioak, itsasertzeko esparruan daudenak, honako hauek dira:

- . Pobeñako padurak eta Arena hondartza
- . Nerbioiko ezkeraldeko itsasertzeko mendiak eta muinoak
- . Gortiz-Armintza itsasertzeko zatia
- . Armintza-Bakio itsasertzeko zatia
- . Gaztelugatxe-Matxitxako itsasertzeko zatia
- . Otoiko mendiak eta itsaslabarrak
- . Mendexa eta Ondarroa arteko kostaldeko ibarrak
- . Mutriku-Saturrarango itsaslabarrak
- . Arno-Olatz mendia
- . Aizturu lurmuturra(Mendata)-Zumaia itsasertzeko zerrenda
- . Santiagoko aurrehondartzako (Zumaia) hareatza eta padura
- . Urola ibaiaren bokalea
- . Getariako San Anton
- . Andutz mendia
- . Garate-Santa Barbara. Artelatz-basoko lekukoak
- . Inurritzako dunak eta itsasadarra (Zarautz)
- . Padurak Oriako itsasadarrean
- . Mendizorrotzeko errekek
- . Uliako itsaslabarrak (Donostia-San Sebastian)
- . Jaizkibel mendia
- . Bidasoa ibaiko padurak eta terrazak

GAUZATZE MAILA

Administrazioaren esku-hartzea.

GAUZATUKO DUEN ERAKUNDEA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Foru Aldundiak eta inplikaturako udalak.

LEHENTASUNA

1. maila

3.2 3.2. JARDUNA : ESPAZIOAK NATURA 2000 SAREAN EDO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BABESTUTAKO NATURA ESPAZIOEN SAREAN SARTZEA

DESKRIBAPENA

Itsasertzeko espazio natural garrantzitsuenak Natura 2000 Sarean edo EAEko babestutako Natura Espazioen Sarean sartzea.

KOKAPENA

Honako hauek izan daitezke:

- Gorliz-Armintza itsasertzeko zatia
- Armintza-Bakio itsasertzeko zatia
- Otoioko mendiak eta itsaslabarrak
- Aizturu lurmuturra (Mendata)-Zumaia itsasertzeko zerrenda
- Mendizorrotzeko errekak
- Jaizkibel mendia

GAUZATZE MAILA

Planak idaztea

GAUZATUKO DUEN ERAKUNDEA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

LEHENTASUNA

2. maila

3.3. JARDUNA : NARRIATUTAKO ESTUARIOAK LEHENERATZEA (BARBADUN, BUTROE, LEA, ARTIBAI, DEBA, UROLA ETA ORIA)

DESKRIBAPENA

Estuarioetan narriatutako zonetan ingurumen-potentzialtasuna leheneratzera eta berreskuratzea bideratuta gauzatu beharreko esku-hartzeen multzoa.

KOKAPENA

Leheneratzeko proposatutako zonak honako hauek izan litezke:

- Barbadun
- Butroe
- Lea
- Artibai
- Deba
- Urola
- Oria

GAUZATZE MAILA

Planak eta leheneratzeko proiektua idaztea eta obra egitea.

GAUZATUKO DUEN ERAKUNDEA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, eta Udalak.

LEHENTASUNA

2. maila

3.3.1. ESKU HARTZEA. Barbadunen estuarioa

- Pobeñako padurak eta ibarrak. Proposamenak murruren gaineko jardunak barne hartzen ditu Pobeñako gunearen iparraldean, murruren zeharreko hainbat tartetan irekitzea eta konektatzea, marea egunero hainbat lekutatik sar dadin. Ibar abandonatu baten aztarnak geratzen dira paduraren zati baten ertzean. Ezabatzea eta padurako landarediak naturalki birkoloniza dezan uztea gomendatzen da. Oro har, paduraren aldameneko ibarretan lurraren aldaparen gainean esku hartu beharko litzateke, padurako landarediak kolonizatze urpetze-maila egokia eta gradiente egokia lortu arte. Paduran eroritako murrak ez dio eragozpen handirik planteatzen sistema naturalaren funtzionaltasunari, baina hurrengo ekintzetan hortik kentzea pentsa liteke.

- La Arenako duna. Ekosistema hauen narriaduraren jatorriak ezabatu egin beharko lirateke, edo mugatu bederen. Honelako babes-sistemak erabil litezke: zona sentikorrak ixtea, dunako landaredia gehiegi zanpatzea saihesteko; hondartzara sartzeko oinezkoen pasaguneak eraikitzea, bisitari-fluxua kanalizatzeko; eta jendea informatzeko kanpainak, kartelak edo bestelako informazio-sistemak erabiliz. Leheneratze-sistemen artean, zentzu hertsian esanda, harea-kaptadoreen instalazioa dago. Duna-lerroa egonkortu ondoren dunako espezieak landatzen dira, horiek baitira, hain zuzen ere, egoera naturalean dunak finkatzeaz arduratzen direnak. Administrazio publikoak CLH enpresak okupatzen dituen lurak erosi behar ditu, bertako instalazioak eraitsi ondoren duna leheneratzera bideratutako ekintzak abian jartzeko.

3.3.2 3.3.2. ESKU HARTZEA. Butroeren estuarioa

- Txipios padura. Errepidearen euste-hormaren gainean bakarrik jardutea proposatzen da, itsasadarraren eta paduraren artean konexioak ahalbidetuz irekiguneen bitartez eta tutuen laguntzarekin, mareari hobeto sartzeko utziko bailioke. Padurako landarediak kolonizatzea ez litzateke arazoa, landaredi aitzindaria badago-eta. Dagoen etxola eraitsi egin liteke eta kirol-zelaiaren eta padura-zonaren artean dauden obra-hondakinak eta zaborrak garbitu. Kirol-zelaiari dagokionez, *Tamarix gallica* edo antzeko espezieen sailekin inguratzea proposatzen da. Padurekiko zona mugakideko nekazaritza eta abeltzaintzako zonetan paisaia integratuko den nekazaritza iraunkorra mantentzea onartzeko modukoa da.
- Iturritxi. Soropil-zonaren zati bat kentzea eta aldaparen gainean jardutea proposatzen da, padurako landarediaren kolonizazio geruzatua ahalbide dezan, itsas pasealekua kontserbatuz.
- San Juanena. Lezoiak zati batean irekitzea eta aldaparen gainean selektiboki jardutea proposatzen da, padura ertaineko landare-espezieek kolonizatzea ahalbidetzeko. Lur mugakideen gaur egungo erabilera mantentzeko (basoa eta landazabala), moteltze-eremuaren eginkizuna beteko bailukete.
- Junkera eta Isuskiza arteko meandroa. Zona estuarioko tarte mesohalinoari dagokio eta, horrenbestez, padurako landarediak koloniza dezake lezoiak irekitzeko eta/edo berrezartzeko jardun txiki batzuekin. Ahalegin gehienak kontserbaziora bideratuta egongo lirateke.
- Abaniko. Erribera berreskuratzea eta lezoiak egokitzea zuzendutako ekintzekin esku hartzea gomendatzen da. Junkera eta Isuskiza arteko meandrorako bezala, lezoiak irekitzeko eta/edo berrezartzeko jardun txikiak gomendatzen dira, baina kasu honetan paisaia leheneratzera zuzenduta egongo lirateke, bere funtzionaltasun ekologikora baino gehiago.

Txipios, Junkera eta Junkera eta Isuskiza arteko meandroa berreskuratuta, elkarrekin konektatutako padura funtzionalen mosaikoa lortuko litzateke zona hauek inguratzen dituen hegazti-faunarentzat.

3.3.3 3.3.3. ESKU HARTZEA. Learen estuarioa

Bi esparru bereizten dira: 1. zonak Marierrota marea-errotaren padurak eta lohiak hartzen ditu bere baitan. 2. zona, bestalde, Zubieta jauregiaren eta Loibekua arteko lohi eta paduren sistemak osatzen du, eta moteltze-zona gisa proposatzen den zona bat du aldamenean.

Oro har, esku-hartze txikiak eginez leheneratzeko ahalmen handia dute bi zonek eta, horrenbestez, ahalegin guztiak sistema osoa kontserbatzera zuzendu behar dira. Arreta berezia eskaini beharko litzaioke 2. zonan proposatzen den moteltze-zonari. Honakoak dira arrazoiak: (i) sistema naturalerako sarbide erraza da; (ii) babes-zortasuneko zonakoa izan arren, erabilera definituak eta finkatuak dituen marearteko padura eta lohien sistema funtzionalaren aldameneko zerrenda da gaur egun. Horren adibide ditugu ontziolaren kokapena, baratzeak, Zubieta jauregiko lorategiz hornitutako lursailak eta araztegiaren aldameneko zona. Horiek ez dira jardun-zonaren barruan sartu, hots, ez da zer-nolako leheneratze-ahalmena duten baloratu. Zerrenda hori etorkizunean padura-sistemaren gainean egon litezkeen presioak moteltzeko pantaila gisa proposatzen da.

Manierrota errotako padurei dagokienez (1. zona), ingurumen eta kultura arloan leheneratzeko aukerak era askotakoak dira eta zehatz-mehatz aztertu beharko dira.

3.3.4 3.3.4. ESKU HARTZEA. Artibairen estuarioa

Ezkerraldean, paduren kontserbazio aktiborako egin daitekeen ekintza bakarra ingurumena zaintzeko plan bat proposatzea da, zonan eragin negatiboa sor dezaketen jarduerak kontrolatzeko, faktorerik garrantzitsuenak azpimarratuz: isurketa likido eta solidoen kontrola, betelanak, etab.

Eskuinaldeari dagokionez, gaur egun ibarrek eta labore-lurrek okupatzen duten moteltze-zona bat proposatzen da, dibertsitate paisajistikoa eta ekologikoaren mesederako izango den nekazaritza iraunkorra mantenduz.

Azken batean, Arrebata-Goilizko padurak hirigune finkatuen artean kokatuta daudenez gero, behar-beharrezkoa da horien ingurumen-egoeran eragin negatiboa izan dezaketen erabilerak eta jarduerak eraginkortasunez kontrolatuko dituen moteltze-lerro bat sortzea, oso mesedegarria izango baita kontserbaziorako.

3.3.5 3.3.5. ESKU HARTZEA. Debaren estuarioa

- Casacampo ibarra. Ibarrek okupatzen duten gainazalaren aldaparen gaineko jardunak, padurako landaredi bereizgarriak kolonizatzea ahalbidetzeko, marearteko lohien sistemak goragoko padura-geruzetarako jarraitutasuna izan dezan.
- Irazabal baserria. Zona puntual jakin batzuetan marea berriz sartzea ahalbidetzeko moduan esku hartu beharko litzateke (Irazabal baserria urak hartzeko arriskua ebaluatuz). Horrez gain, aldaparen gainean selektiboki jardun liteke, padura baxuko/ertaineko landare-espezie bereizgarriek kolonizatzea ahalbidetzeko. Lur mugakideen gaur egungo erabilera (landazabala) mantendu beharko litzateke, Arnazabal gunearen hedapenaren aurrean moteltze-zonaren eginkizuna beteko bailukete, Euskal Autonomia Erkidegoko estuarioetako laborantza tradizionala kontserbatuz gainera.

3.3.6 3.3.6. ESKU HARTZEA. Urolaren estuarioa

- Santiagoko padurak, dunak eta hareatzak. Dunen gainean egiten den jolas-jardueren presioak sor lezakeen narriadura geldiaraztera eta etorkizunean hiri-lurzoru mugakidean eraikuntzak saihestera bideratutako kontserbazio-jardunak proposatzen dira. Padura-zonari dagokionez, birkolonizazio-prozesu naturalari jarrai diezaion utzi beharko litzateke, eta prozesu horren jarraipena eta ebaluazioa egin.
- Estuarioaren erdiko tarteko lohiak, padurak eta irlatxoak, Ibarralde ibarra eta Bedua auzoa. Zona honetan, irlatxoaren parean estuarioari irabazitako lurretan zentratu beharko lirateke leheneratzeko jardunak. Gaur egungo kokagunea padura eta lohien sistema bezala berreskura liteke. Aldapa egokituz eta zonaren urpetze-prozesua ahalbidetuz esku hartu beharko litzateke. Horrela sistema jarraitua berreskuratuko litzateke, iparraldean mugakide dituen padurekin batera. Hortaz, egin beharreko lehen jarduna itsasoko eta lehorreko jabari publikoan sartzea eta/edo administrazioak lurrak erostea izango litzateke, gerora leheneratze ekologikoari ekiteko. Estuarioaren erdiko tarteko lohi, padura eta irlatxoaren kudeaketa-unitatearen gainerakoak, maila handiko osotasun ekologikoa duela kontuan hartuta, epe laburrerako kontserbaziora eta etorkizuneko eraginen prebentziora bideratutako jardunen onura lor lezake. Ibarralde ibarrari dagokionez, Zumaiako hirigunearen moteltze-zonaren eginkizuna betetzean datza bere garrantzia. Bedua auzoan padurako landaredi bereizgarriaren birkolonizazioa sustatuko litzateke, oso jardun txikien bitartez, luraren aldapa kontrolatuz eta zona urak hartzea ahalbidetuz. Hartara, 1,5 ha sistema funtzional berreskuratuko lirateke gutxi gorabehera.

3.3.7 3.3.7. ESKU HARTZEA. Oriaren estuarioa

- Altzerriko ibarrak eta padurak. Ezkerraldean proposatzen dira kontserbazio-neurriak, bertan padura-zatiak eta erriberako landaredia geratzen dira-eta. Errekako erriberak garbitzera bideratutako ekintzak eta isurketak eta zaborrak kontrolatzeko neurriak bereziki azpimarratu beharko lirateke.
- Santiagoko padura eta ibarrak. Jardun-zona zehatza Santiagoko padura da; bertan, erriberak kontserbatzeko eta leheneratzeko neurriak proposatzen dira, eta jatorria aldameneko ibarren zonan duten eraginak prebenitzeko neurriekin koordinatuta egon beharko lukete. Ibar horiek Santiagoko paduraren moteltze-zonak bezala jardungo lukete epe laburrerako kontserbaziora zuzendutako lehen jardunean. Ondorengo esku-hartzeetan Santiagoko ibar horien azaleraren zati bat padura-sistema bezala berreskuratzea proposatzen da. Santiagoko ibarraren gaur egungo egoeraren arabera, hainbat proposamen egin daitezke, maila eta jarduteko konplexutasun txikienetik handienera, lortu nahi den padura-sistemara itzultzeko ahalmen edo mailaren arabera. Ia erabat berreskura daiteke padura funtzional bezala eta bere jatorrizko egoerara itzuli, Olatxo baserriari lotutako nekazaritza-jarduera garatzen utziz eta baserria egoki babestuz. Horrek jardun-plan bat eskatuko luke, honako ildo nagusiak izango lituzkeena: administrazio publikoak lurzorua erosi ondoren, marea-dinamikaren gaineko jardunak egin beharko lirateke, zona padurako lurak okupatu aurreko fisionomiara morfologikoki itzularaztera bideratuak. Oro har, beteguneak harrotuz, lurraren aldapa egokituz eta lezoiak kontrolpean irekiz lortu nahi da leheneratzea. Horrez gain, lezoi berri bat egingo litzateke Olatxo baserria babesteko. Halaber, Santiago erreka bokaletik gertu dagoen etxebizitza lorategiduna ere (41. hiri-lursaila) babestu egingo litzateke. Kanpo-lezoi bat eraiki behar da noiz edo noiz ekinozioko marea bizietan zehar urak har ez dezan.
- Motondo. Egoeren mosaiko bat bezala agertzen da. Izan ere, era askotako betelanak egin dira bertan, arrakasta txikiko laboreak ere izan dira, baita haltzadi bat ere ur gezaren eragina duen lekuan. Zonaren zati bat behintzat marearteko lohien eta paduren sistema bezala berreskuratu behar da, eta estuarioarekin komunikatu beharko litzateke. Aurrealdean dituen bidea eta harri-lubeta eta marea-kotaren gaineko goragunea direla-eta, maila handiko esku-hartzea behar da. Aldaparen gainean ere jardun beharko litzateke urpetze-gradiente ahalbidetzeko, berrezarri nahi den padurako landaredi-motaren arabera. Zonaren edozein okupazio berri alde batera utzi behar da.
- Donparnasa eta Olaberrietako padurak. Ingurumena hobetzeko neurriak hartu behar dira, esate baterako estuarioarekin komunikatzen duten ibilguetako hondakin solidoak garbitzea.
- Itzao eta Marrotako ibarrak. Batik bat erriberak leheneratzea proposatzen da, eta gaur egun urperagarriak diren zonetan urpetze-azalera handitu, dagoen kota beheratuz eta selektiboki lan eginez lurraren aldaparen gainean. Padura-zona ertain/altu bezala berreskura liteke, bertan substratuak neurritzko gazitasuna behar baitu eta, horrenbestez, marearen eraginak ez baitu behar eguneroko urpetze-maiztasuna. Itzaoren eta Marrotako ibarren

V. LIBURUKIA. Azterlan ekonomikoa eta finantzarioa eta jardun-programa

gainerako azalera bereziki zona honen eta, oro har, Oriaren estuarioaren narriaduraren aurrerakada geldiarazteko moteltze-zona bezala proposatzen da.

- Saria. Marearen eragina berriro sartuz eta aldapa egokituz jardun behar da, padura ertain/altuko espezie bereizgarrien kolonizatzeko baldintza egokiak lortu arte: *Spartina* eta *Juncus* bezalako espezie autoktonoak maila baxuetan eta *Tamarix*, *Salix* eta *Agnus* maila altuenetan, mareek zuzenean urpetzen ez dituzten lekuetan. Ibarren zona moteltze-zona bezala proposatzen da. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko estuarioetako inguru heze askoren bereizgarri den nekazaritza iraunkorra mantentzea gomendatzen da.

3.4 3.4. JARDUNA : HONDARTZA ETA KOSTALDEKO ZONA NARRIATUAK LEHENERATZEA

DESKRIBAPENA

Kostaldeko zona narriatuetan ingurumen-potentzialtasuna leheneratzera eta berreskuratzen bideratuta gauzatu beharreko esku-hartzeen multzoa.

Zona hauek leheneratzeko plan bat formulatuz leheneratu beharreko eremutzat joko dira eta, beren nolakotasunak eta ingurunearen ezaugarriak kontuan hartuta, antzekoena gertatzen zaien hondartza-kategoriarantz aldatuko zaie sailkapena.

KOKAPENA

Leheneratzeko proposatutako zonak honako hauek dira:

- Bilbaoko portuko kanpoaldeko Abra
- Kondemasti (Pasaia)
- Inpernupe (Zumaia)
- Ondarbeltz (Mutriku)
- Basordas (Lemoiz)
- La Bola eta Areeta (Getxo)
- Lagako hondartza (Ibarrangelu)

GAUZATZE MAILA

Plana eta leheneratzeko proiektua idaztea eta obra egitea.

LEHENTASUNA

3. maila

3.4.1 3.4.1. ESKU HARTZEA. Bilbaoko portuko kanpoaldeko Abra

DESKRIBAPENA

Kanpoaldeko Abrako Bilbaoko portu berriaren instalazioekin mugakide diren lurak leheneratzea, bereziki azpimarratuz maileguak eta zabortegeiak morfologikoki lehengoratzeko, landare-estalkia berrezartzeko eta paisaia egokitzeko jardunak.

GAUZATUKO DUEN ERAKUNDEA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Bilbaoko Portu Autonomoa.

3.4.2 3.4.2. ESKU HARTZEA. Kondemasti (Pasaia)

DESKRIBAPENA

Antzinako hondartza berreskuratzea, egun okupatzen duen ontziola kendu eta gero: Astilleros Askorreta enpresaren emakida berreskuratu, gaur egun dauden instalazioak eraitsi eta senaia lehengoratzeko.

GAUZATUKO DUEN ERAKUNDEA

Portuko Agintaritza eta Kostalde Zuzendaritza Nagusia.

3.4.3 3.4.3. ESKU HARTZEA. Inpernupe (Zumaia)

DESKRIBAPENA

Ingurunea egoteko eta paseatzeko zona gisa berreskuratzea: goiko aldea urbanizatzea eta altzariak instalatzea (eserlekuak, farolak eta zerbitzu-etxola).

GAUZATUKO DUEN ERAKUNDEA

Zumaiaiko Udala eta Kostalde Zuzendaritza Nagusia.

3.4.4 3.4.4. ESKU HARTZEA. Ondarbeltz (Mutriku)

DESKRIBAPENA

Gaur egun dauden instalazioak eraistea eta erretiratzea (hondartzaondoko hormigoizko egiturak eta kai-muturrak) eta lekua jolas-erabilerako eremu gisa berreskuratzea: hondartzaondoan jolasleku bat eraikitzea (kirol-dartsena eta itsas pasealekua) eta hondartza leheneratzea.

GAUZATUKO DUEN ERAKUNDEA

Mutrikuko Udala, Eusko Jaurlaritzako Portu Zuzendaritza eta Kostalde Zuzendaritza Nagusia.

3.4.5 3.4.5. ESKU HARTZEA. Basordas (Lemoiz)

DESKRIBAPENA

Senaia honetan bi aukera planteatzen dira:

- Instalazioak eraitsi eta senaiaren jatorrizko egoera berreskuratzea.
- Itsasertza babestearekin bateragarriak diren jarduerak ezartzea, kokalekua lehengoratzeko laguntzen dutenei lehentasuna emanez.

Aukera bietan Plan Berezi bat egingo da eremua antolatzeako

GAUZATUKO DUEN ERAKUNDEA

Lemoizko Udala, IBERDROLA, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Kostalde Zuzendaritza Nagusia.

3.4.6 3.4.6. ESKU HARTZEA. La Bola eta Areeta (Getxo)

DESKRIBAPENA

Barnealdeko Abran uren kalitatea hobetu ahala areagotu egingo da zonaren turismo-ahalmena. Harea-fronte jarraitu bat berreskuratzeako Itsas klubaren instalazioak kirol-portu berrira eraman beharko lirarteke eta Areeta eta La Bola hondartzak leheneratu.

GAUZATUKO DUEN ERAKUNDEA ETA INBERTSIOA

Portuko Agintaritza eta Kostalde Zuzendaritza Nagusia.

3.5 3.5. JARDUNA : LANDARE ESTALKIA LEHENERATZEA ETA KONTSERBATZEA

DESKRIBAPENA

Presio antropikoen (baso-soiltzeak, neurritz gaineko artzaintza, etab.) eta/edo naturalen (higadura, suteak, etab.) mende dauden itsasertzeako espazio garrantzitsuetan landare-estalkia hobetzera eta kontserbatzera bideratutako jardunak.

KOKAPENA

Jardunak honako zona hauetan burutuko dira:

Erriberako landaredia leheneratzea:

1. Mendexa eta Ondarroa arteko kostaldeko ibarrak (Mendexa, Berriatua eta Ondarroa)

V. LIBURUKIA. Azterlan ekonomikoa eta finantzarioa eta jardun-programa

2. Mendizorrotzeko sakanak (Donostia-San Sebastian eta Orio arteko muga)

Gehienbat suteen eta baso-soiltzeen ondorioz zuhaitzik gabe dauden eremuak leheneratzea:

1. Nerbioiko ezkeraldeko itsasertzeko mendiak eta muinoak (Abanto Zierbena, Santurtzi eta Muskiz)
2. Urgull-mendi (Getaria)
3. Agiti mendia (Donostia-San Sebastian / Orio)
4. Ulia mendia (Donostia-San Sebastian)
5. Mendizorrotzeko sakanak (Donostia-San Sebastian eta Orio arteko muga)
6. Jaizkibel mendia (Hondarribia)
7. Gaztelugatxe-Matxitxako eta Arribolatak (Bermeo)

Artadi kantaurrearen formazioak hobetzea eta kontserbatzea:

1. Otoio mendia (Ispaster)
2. Lumentxa muinoa (Lekeitio)

GAUZATZE MAILA

Proiektua idaztea eta obra egitea

GAUZATUKO DUEN ERAKUNDEA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Foru Aldundiak eta Udalak.

LEHENTASUNA

2. maila

4 4. AZPIPROGRAMA : ERABILERA PUBLIKOA SUSTATZEA ETA ARAUTZEA

HELBURU OROKORRA

Itsasertzeko esparrua ingurumen-baliabideak bere eskaintza didaktiko eta turistikoari gehitzeko azpiegitura egokiez hornitzea; ingurumen-baliabidetzat jotzen dira dituen balio potentzialak alderdi posible guztietan (geologia, botanika, fauna, paisaia, arkeologia, etab.).

BERARIAZKO HELBURUAK

- Itsasertzeko baliabideak arrazionalki ezagutzeko, maneiatzeko eta hedatzeko aukera ematea, zientzia, kultura, hezkuntza edo jolaserako balio berezia duten ingurune elementuak kontserbatzen laguntzen den aldi berean.
- Hiri-hondartzen ingurunearen gainean programatikoki eragitea, haiek antolatzera eta hobetzera bideratutako ekintzen bitartez.
- Itsasertzeko ingurumen-baliabideak interes didaktiko eta ingurumenekoa eta turistikoa duten elementu gisa erabiltzen uztea, horien aprobetxamendua optimizatzea ahalbidetuko duten azpiegiturak sortuz.

JARDUNAK

- 4.1. Ingurumen-hezkuntzako eta natura interpretatzeko planak idaztea.
- 4.2. Hiri-hondartzen erabilera publikoko planak lantzea.
- 4.3. Itsasertza erabili eta gozatzeko interpretazioko zidorrak ekipatzea.

4.1 4.1. JARDUNA : INGURUMEN HEZKUNTZAKO ETA NATURA INTERPRETATZEKO PLANAK LANTZEA

DESKRIBAPENA

Dibulgazio-funtzioa betetzen duten itsasertzeko jolas- eta kultura-espazioen esanahira hurbiltzea eta ulertzea dute helburu. Plan horiek espazioek biltzen dituzten balio naturalistikoak dibulгатzea ardatz duten programak eta sentsibilizazio-programak edukiko dituzte, presio antropiko indartsuaren mende dauden zonetan.

KOKAPENA

Honako espazio hauen gainean idatz liteke ingurumen-hezkuntzako plana:

V. LIBURUKIA. Azterlan ekonomikoa eta finantzarioa eta jardun-programa

1. Galea lurmuturra-Barrika (Getxo, Sopelana eta Barrika)
2. Gaztelugatxe-Matxitxako (Bakio eta Bermeo)
3. Aizturi lurmuturra (Mendata) - Zumaia
4. Otoio mendia (Ispaster)
5. Lumentxa muinoa (Lekeitio)
6. Ulia mendia (Donostia-San Sebastian)
7. Jaizkibel mendia (Pasaia, Lezo eta Hondarribia)

GAUZATZE MAILA

Planak idaztea

GAUZATUKO DUEN ERAKUNDEA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Getxo, Sopelana, Barrika, Deba, Zumaia, Bakio, Bermeo, Ispaster, Lekeitio, Getaria, Donostia-San Sebastian, Pasaia, Lezo eta Hondarribiko udalak.

LEHENTASUNA

3. maila

4.2 4.2. JARDUNA : HIRI HONDARTZEN ERABILERA PUBLIKOKO PLANAK LANTZEA ETA GAUZATZEA

DESKRIBAPENA

Hiri-hondartzen erabilera publikoko planak erabiltzaileen higiene- eta segurtasun-baldintzak bermatzeko eta zerbitzu-zuzkidurak antolatze helburuarekin landuko dira; hori guztia, zona hauek helburu duten turismo-erabilerak merezi duen kalitate-maila eta diseinu erakargarriarekin. Hondartzen erabilera-kategoriak ezarriko dira eta hondartzaren ingurunearen izaera ingurumena eta paisaia narriatzearen ondorioz ez galtzeko ahaleginak egingo dira.

Hiri-hondartzek planifikatzaileari aukera gutxi utzi ohi dioten arren, eraikuntza finkatua kosta-lerroraino iritsi ohi baita, hondartzaren esparrua honako artezpide hauen arabera zonakatzea proposatzen da:

V. LIBURUKIA. Azterlan ekonomikoa eta finantzarioa eta jardun-programa

- Hondartzaren gainazala: libre geratuko da, eta baimenduko diren zuzkidura bakarrak bainuarekin eta hondartzaren jolas-erabilerarekin zerikusia duten egitura arinak izango dira: salbamendu-postua, dutexak, aldagelak, etzaulkien eta eguzkitakoen alogera, etab.
- Erabilera publikoko zona periferikoa: oinezkoentzat eta lorategiz hornitua.
- Zerbitzu-zona: ostalaritza-instalazioak, telefonoa, higiene-zerbitzuak, etab.
- Aparkalekua: ez da hondartzatik ikusten.
- Itsasorako sarbideak: ibilgailuentzat zein oinezkoentzat.
- Zona eraikia: antolamenduaren mende, bolumenak araututa, tipologiak, ikus-oztopoak saihestea, etab.

KOKAPENA

LAP honetan honako hauek jotzen dira hiri-hondartzatzat:

1. Hondarribia
2. Zurriola (Donostia-San Sebastian)
3. Kontxa (Donostia-San Sebastian)
4. Ondarreta (Donostia-San Sebastian)
5. Santa Klara (Donostia-San Sebastian)
6. Antilla (Orio)
7. Oribarzar (Orio)
8. Zarautz
9. Malkorbe (Getaria)
10. Gaztetape (Getaria)
11. Santiago (Zumaia)
12. Itzurun (Zumaia)
13. Deba, Santiago edo Lapari
14. Ondarbeltz (Mutriku)
15. Mutriku
16. Saturraran (Mutriku)
17. Arrigorri (Ondarroa)
18. Karraspio (Mendexa)
19. Isuntza (Lekeitio)
20. Ea
21. Laga (Ibarrangelu)
22. Laida (Ibarrangelu)
23. Kanala (Sukarrieta)
24. San Antonio (Sukarrieta)
25. Toña (Sukarrieta)

V. LIBURUKIA. Azterlan ekonomikoa eta finantzarioa eta jardun-programa

26. Laidatxu (Mundaka)
27. Bakio
28. Gorliz / Plentzia
29. Atxabiribil / Arrietara (Sopelana)
30. Solandotes, Bariñatxe edo Basatia (Sopelana / Getxo)
31. Arrigunaga (Getxo)
32. Ereaga (Getxo)
33. Areeta (Getxo)
34. La Arena (Abanto Zierbena / Muskiz)

GAUZATZE MAILA

Plana idaztea eta aurreikusitako jardun-programa gauzatzea.

GAUZATUKO DUEN ERAKUNDEA

Euskal Autonomia Erkidegoko Kostalde Mugapea, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Osasun Saileko Lurralde Ordezkaritzak eta inplikaturako udalak.

LEHENTASUNA

1. maila

4.3. JARDUNA : ITSASERTZA ERABILI ETA GOZATZEKO INTERPRETAZIOKO ZIDORRAK EKIPATZEA

DESKRIBAPENA

Tamaina txikiko ekipamenduak instalatzea, hala nola begiratokiak eta behatokiak, bisitariak ibilbide eta eremu jakin batzuetarantz bideratu eta, hartara, urrakortasun handiagoko beste batzuk babestuko dituzten ibilbide autodidaktikoak egokitzea, interpretazio-panelak, museo didaktiko eta ingurumenekoak, etab.

KOKAPENA

Honako hauek izan litezke:

1. Aizturi lurmuturra - Zumaia (Deba eta Zumaia)
2. Gaztelugatxe-Matxitxako (Bakio eta Bermeo)
3. Jaizkibel mendia (Pasaia, Lezo eta Hondarribia)
4. Otoio mendia (Ispaster)
5. Lumentxa muinoa (Lekeitio)

V. LIBURUKIA. Azterlan ekonomikoa eta finantzarioa eta jardun-programa

6. Getariako San Anton (Getaria)
7. Ulia mendia (Donostia-San Sebastian)
8. Pobeñako mendebaldea

GAUZATZE MAILA

Proiektua idaztea eta obra egitea

GAUZATUKO DUEN ERAKUNDEA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Foru Aldundiak eta inplikaturako udalak.

LEHENTASUNA

3. maila

5 5. AZPIPROGRAMA : IKERKUNTZA ZIENTIFIKOA

HELBURU OROKORRA

Lurraldearen Arloko Plan hau lantzean antzeman diren informazio zientifikoaren hutsuneak osatzea.

BERARIAZKO HELBURUAK

Defizitariotzat jotzen diren gaiei buruzko ikerkuntza-proiektuak idaztea. Horietako batzuk aztertzen ari dira dagoeneko eta alderdi jakin batzuetan sakonkiago aztertzea proposatzen da.

JARDUNAK

5.1. Itsasertzaren ingurumen-egoerarekin zerikusia duten proiektuak idaztea, bereziki habitaten karakterizazioari eta kartografiari buruzkoak, kostaldeko material-garraioei buruzko azterlanak, estuarioetako eta kostaldeko ingurune fisikoari buruzko azterlanak, epe luzearako klima-alaketari buruzko datuak lortzea, espezie aloktonoak sartzeari buruzkoak, etab.

5.2. Itsasertzaren kudeaketarekin zerikusia duten proiektuak idaztea.

GAUZATZE MAILA

Azterlanak egitea

GAUZATUKO DUEN ERAKUNDEA

Eusko Jaurlaritza, Euskal Herriko Unibertsitatea eta ikerkuntza zientifikoko zentroak.

LEHENTASUNA

3. maila

5.1 5.1. JARDUNA : ITSASERTZAREN INGURUMEN EGOERARI BURUZKO PROIEKTUAK IDAZTEA

Honako azterlan hauek egitea proposatzen da:

1. **Itsasertzeko uren kalitate-sarea (urak, sedimentuak, biota eta komunitateak).** Estuarioen eta kostaldeko uren egoera eta bilakaera areago ezagutu, uneko eskemari eutsiz —hiru estazio berri 1998tik aurrera eta, lau urtean behin, estuario bakoitzeko lagintzeak—.

2. **Lurretik itsasora egindako isurketen ingurumenaren gaineko eragina.** Isurketek itsas ekosistemaren gain dituzten ondorio nagusien ezaugarriak ezarri eta arazo handienak dituzten puntuak kokatu, eta, aldi berean, berreskurapenerako neurri zehatzak proposatu.
3. **Estuarioen eta kostaldeko uren kalitate iktiologikoa.** Itsasadarretako eta itsasertzeko arrain-komunitateak eta inguruneen kalitatearekiko horien erlazioa identifikatu.
4. **Hondakin flotatzaileen itsas kutsadura.** Arazoaren benetako garrantziaren aurreikuspen bat atera, eta bere sorburua ezarri eta konpontzeko neurri zehatzak proposatu.
5. **Portu eta estuarioetako TBT (tributiltin) bidezko kutsaduraren azterketa.** Uretan, sedimentuetan eta moluskuetan duen kontzentrazioa eta komunitate bentikoaren gainean izan dezakeen eragina. Kutsadura murrizteko proposamenak.
6. **Kostaldeko plataformako sedimentu eta uraren kutsatzaile-hondoko mailen azterketa** (metal astunak, osagai organikoak etab.).
7. **Estuarioetako eta kostaldeko zonako kutsatze- eta barreiatze-prozesuen azterketa**, modelizazio-bitartekoen bidez.
8. **Habitaten ezaugarrien ezarpena eta horien kartografia.**
9. **Kostaldeko zonako materialen garraio-azterketak.**
10. **Estuarioetako eta kostaldeko ingurune fisikoaren azterlanak.**
11. **Epe luzeko klima-aldaketari buruzko datuen eskurapena.**
12. **Espezie aloktonoak sartzeari buruzko azterketak.**
13. **Aldaketa klimatiko eta horren eraginari buruzko proiektuak.**

5.2 5.2. JARDUNA : ITSASERTZAREN KUDEAKETARI BURUZKO PROIEKTUAK IDAZTEA

Honako azterlan hauek egitea proposatzen da:

1. **Euskal kostaldeko kalte errazeko itsas zonen inbentarioa.** Zona bakoitzaren ezaugarriak zehaztea, bakoitzerako mehatxu nagusiak eta epe labur, ertain eta luzera har daitezkeen neurriak.

V. LIBURUKIA. Azterlan ekonomikoa eta finantzarioa eta jardun-programa

2. **Komunitate neritikoetan hondoko arrasteak utzitako kaltea.** Kostaldeko zonako bentoen, planktonen eta sare trofikoaren gaineko ondorioak.
3. **Itsasertzeko dinamikari buruzko azterlanak: mareen, korronteen eta uhinen neurriak.**
4. **Itsasertzeko sedimentuen dinamika: euskal kostaldeko unitate geomorfologikoen ezaugarriak.** Sedimentu-garraioaren unitateak eta kostako jardunek (ibai-deskargak, isurketak eta obrak) horietako bakoitzean duten eragina aztertu.
5. **Estuarioen bilakaera fisiografikoa** (padurak, hareatzak, drainatze-kanalak etab.), informazio historiko erabilgarriaren azterketaren bidez (kartografia eta aireko argazkiak).
6. **Aldaketa klimatikora egokituko diren politikei buruzko azterlanak.**

6 ITSASERTZA BABESTU ETA ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANAREN JARDUN PROGRAMAREN BALORAZIO EKONOMIKO OROKORRA ETA LEHENTASUNAK EZARTZEA

6.1 Jardunen lehentasunak ezartzea

Jardunak hiru lehentasun-mailatan hierarkizatu dira, planaren helburuak bete ahala jardunak gauzatzeko beharraren arabera.

Honako hauek jo dira **lehen mailakotzat**, hots, presako jarduntzat, eta berehala hasi behar dira:

- 1.1. jarduna. Itsasoko eta lehorreko jabari publikoaren eta babes-zortasunaren mugaketak onartzea.
- 1.2. jarduna. Kostaldeak Bereziki Babesteko esparruen definizioa (Kostaldeeiei buruzko Legearen 22. artikulua).
- 1.3. jarduna. 3/1998 Legearen 51. artikulua araber, Kalte Errazeko Ingurumena duten Zonak mugatzea.
- 2.1. jarduna. Arazketa- eta saneamendu-gaiak koordinatzeko Plan Zuzendaria idaztea.
- 2.2. jarduna. Hondakin-uren araztegiak eraikitzea.
- 3.1. jarduna. LAAetako 3. eranskineko interes naturalistikoko eremuak hiri-plangintzan barne hartzea.
- 3.3. jarduna. Estuarioetan narriatutako eremuak leheneratzea.
- 4.2. jarduna. Hiri-hondartzen erabilera publikoko planak idaztea eta gauzatzea.

Honako hauek jo dira bigarren mailakotzat, hots, epe labur edo ertainera aurrera eraman behar diren jardueratzat:

- 2.3. jarduna. Hiriguneetan saihesbide berriak eraikitzea.
- 3.2. jarduna. Baliabide Naturalak Antolatzeako Planak idaztea.

V. LIBURUKIA. Azterlan ekonomikoa eta finantzarioa eta jardun-programa

- 3.5. jarduna. Landare-estalkia leheneratzea eta kontserbatzea.
- 4.1. jarduna. Ingurumen-hezkuntzako eta natura interpretatzeko planak idaztea.

Azkenik, honako hauek jo dira hirugarren mailakotzat, hots, epe ertainera (8-16 urte) aurrera eraman behar diren jardueratzat:

- 3.4. Hondartza eta kostaldeko zona narriatuak leheneratzea.
- 4.3. Itsasertza erabili eta gozatzeko interpretazioko zidorrak ekipatzea.
- 5.1. Itsasertzaren ingurumen-kalitatearekin zerikusia duten proiektuak idaztea.
- 5.2. Itsasertzaren kudeaketarekin zerikusia duten proiektuak idaztea.

6.2 Azterlan ekonomikoa.

Proposatzen diren jardunen artean, behintzat gutxi gorabehera aterata, kostu-kalkulu bat egiteko modua ematen dutenak **ekonomikoki baloratzen dira**. Beste batzuk, administrazioaren esku-hartzeak batik bat, administrazioaren berezko jardunen artean daude eta, horrenbestez, administrazioak baditu dagozkien aurrekontu-sailak. Horregatik, balorazio ekonomikotik kanpo uzteko erabakia hartu da.

Kontuan hartu behar da burututako balorazio ekonomikoak gutxi gorabeherakoak eta hurbilketa bidezkoak direla. Horrenbestez, proposatutako edozein jardun martxan jartzeko, azterlan zehatz bat egin behar da aurretik, era errealagoan eta zehatzagoan horien kostuak balora ditzan.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaz besteko administrazioen eskumen hutsekoak diren gauzatze-jardunak egiteko kostuak ere ez dira ekonomikoki ebaluatu.

1. azpiprogramak administrazio-izaerako jardunak bakarrik ditu.

Azpiegiturak egokitzeko 2. azpiprogramari dagokionez, hona hemen baloratutako jardunen kostuak:

DESKRIBAPENA	INBERTSIOA (mila eurotan)
2.1. Arazketa- eta saneamendu-gaiak koordinatzeko Plan Zuzendaria idaztea	540
2.2. Hondakin-uren araztegiak eraikitzea	17.100

Baliabide naturalak babestu, hobetu eta kontserbatzeko 3. azpiprogramari dagokionez, hona hemen baloratutako jardunen kostuak:

V. LIBURUKIA. Azterlan ekonomikoa eta finantzarioa eta jardun-programa

DESKRIBAPENA	INBERTSIOA (mila eurotan)
3.4. Hondartza eta kostaldeko zona narriatuak leheneratzea	38.730
3.5. Landare-estalkia leheneratzea eta kontserbatzea	7.210

3.3. azpiprogramari (Estuarioetan narriatutako eremuak leheneratzea) dagozkion jarduerak ez dira baloratu, oraindik garapen-fase hasiberrian dago-eta.

Erabilera publikoa sustatu eta arautzeko 4. azpiprogramari dagokionez, hona hemen baloratutako jardunen kostuak:

DESKRIBAPENA	INBERTSIOA (mila eurotan)
4.1. Ingurumen-hezkuntzako eta natura interpretatzeko planak idaztea	450
4.2. Hiri-hondartzen erabilera publikoko planak idaztea eta gauzatzea	5.860
4.3. Itsasertza erabili eta gozatzeko interpretazioko zidorrak ekipatzea	1.890

Azkenik, ikerkuntza zientifikoari buruzko 5. azpiprogramari dagokionez, hona hemen aurreikusitako jardunen kostuak:

DESKRIBAPENA	INBERTSIOA (mila eurotan)
5.1. Itsasertzaren ingurumen-kalitatearekin zerikusia duten proiektuak idaztea	1.350
5.2. Itsasertzaren kudeaketarekin zerikusia duten proiektuak idaztea	1.350

Horiek horrela, jardun-multzoaren guztizko kostu zenbatetsia honakoa da:

DESKRIBAPENA	INBERTSIOA (mila eurotan)
1. azpiprograma. Jardunak eta administrazio-koordinazioa	-
2. azpiprograma. Azpiegiturak egokitzea	17.640
3. azpiprograma. Baliabide naturalak babestu, hobetu eta kontserbatzea	45.940
4. azpiprograma. Erabilera publikoa sustatu eta arautzea	8.200
5. azpiprograma. Ikerkuntza zientifikoa	2.700
Guztira	74.480